

# noaua



**Antonio Eizagirre:**  
**“Aurtengo babarrunak  
oso itxura ona du”**

**Abenduaren 29an,  
Pirritx, Porrotx eta  
Marimotots Oiardon**



**Euritearen ondorioz  
errioak gainezka  
egin zuen hainbat tokitan**

**6. or.**

**KAFE GARAIA**

Iñaki Mujika: “Usurbilgo Lanbide Eskolan ikasketak bukatzen dituztenak nahikoa erraz lanbideratzen dira”

# Gabonetako berezitasunak



ENKARGUZ  
ESKAERA BEREZIAK  
ERE PRESTATZEN  
DITUGU!

## FRESKOAK:

BEHI ETA TXAHAL AZPIZUNA, KAPOIA,  
FOIE ESKALOPINAK, PULARDA, ARKUMEA,  
ANTXUME, TXERRIKUMEA ETA ABAR...



## BEREZIAK:

ARRAI ZOPA, ARRAI PASTELA,  
GABONETAKO KATXOPOA, ONDDO  
TARTELETA, TXANGURRO BETEA



## BEHE TEMPERATURAN ERREAK:

ARKUMEA, ANTXUME, TXERRIKUMEA...



# Otar-Goxo

E l i k a g a i a k

HARATEGIA - URDAITEGIA

Zubiaurrenea, 2 • ☎ 943 36 55 81 • 20170 Usurbil



# ARATZ

zabaleta anaiak  
1989tik



Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da



·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak  
Igara Bidea, 15, Donostia      erreserbak: 943 21 92 04

## Albisteak iruditan

# Txangoa, auzoan barrena

**S**antuenea Elkarlanean talde eragilea Auzo Planaren definizioa dinamizatzen ari da, eta galdetegien ostean, txango bat egin zuten abenduaren 2an. Abenduaren 11n beste irteera bat iragarria zegoen baina bertan behera utzi behar izan zuten.

Galdetegian aipatutako gaietan sakonduz, auzoaren azterketa zehatzago bat egitea zen txangoen asmoa. Era hone-tan, auzoko kaleak eta txokoak begirada analitikoaz aztertu nahi zituzten, diagnostiko borobilago bat lortze aldera. Ordu desberdinetan jarri nahi zituzten hitzorduak, egun argiz zein iluntzean egindako ekarpenak jasotzeko.

## Diagnosiaren emaitzen aurkezpena, abenduaren 16an

Santueneko Auzo Planaren diagnosi



Santuenea auzoaren aukerak, gabeziak eta puntu kritikoak identifikatzea zuten helburu txangoek, diagnostiko borobilago bat lortze aldera. Argazkian, abenduaren 2an eginiko irteera.

faseko emaitzen eta hurrengo urratsen aurkezpena iragarri dute ostegun hone-

tarako, abenduaren 16rako, arratsaldeko 18:30ean Santueneko frontoian.

## Laburrean

### Kasuk gorantz etengabe

59 Covid-19 kasu zenbatu zituen Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak iragan aste osoan. Egun bakar batean, abenduaren 10ean inoizko kopuru altuena, 18. 108 kasu azarora osoan, abenduko lehen 12 egunetan 94. 1.712'11raino igo da intzidentzia.

### Gaztelektutik Txuri Urdinera

Donostiako Txuri Urdin izotz jauregira irteerak antolatu ditu Gaztelekuak. Txango hauetan parte hartzeko guraso baimenak jaso behar dira alde aurretik. Argibide gehiago Gaztelekuan, gazteleku@usurbil.eus helbidean edo 943 371 050 telefono zenbakian.

### Urteko azken aldizkariak

Abenduaren 24an kaleratuko dugu urteko azken NOAUA! astekaria, Gabonetako gehigarriarekin batera. Ordu-rako zorion-agur edo oharririk baduzue, abenduaren 17a baino lehen helarazi erredakzioa@noaua.eus helbidera edo deitu 943 360 321 telefono zenbakira.

# noaua

Kultur Elkartea  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus  
Jendaurrreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkariako koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua.  
**Disenua:** Erroit S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noaua.eus

**Banaketa:** Iñaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.930 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



## Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak  
Usurbilgo Udala  
Euskal Herrira!



Alazne Arruti


Urak beti egiten du bere bidea. Nekez gera daiteke bere nahia, nahiz eta gizakiok abilak garen horrekiko kudeaketan. Indar geldiezina du bere baitan. Eta ez du behar izaten baldintza bereziegirik bere norabidea jarraitzeko.

Ibai, itsaso zein errekek lehen hartzen ez zuten eremu bat hartu edo bereganatzeari deitzen diogu uholdea. Lehen lehor zena, ustez gurea dela uste duguna galtzeari. Lehen nekazaritzarako emankorra zen eremu hori, orain jabetza pribatu eta espekulazioaren eraikuntzarako lur zati baten promesa izan daitekeen huraxe.

Uholde bat, tsunamien eraginez itsas-maila igotzean ere gerta daiteke adibidez. Eta ziur gutako askok, errazago irudikatu dezakegula halako hondamendi edo katastroferik, azken urteetan zabaldu diren pelikula ospetsu eta dramatikoen antzekoak.

Dena den, gure zonaldean, euri jasan ondorioz ibaiek gainezka egitean gertatu ohi da gehienetan. Eta Euskal Herrian ere, jasan izan dira iraganean honekin lotutako zenbait pasarte garrantzitsu. Esango nuke ordea, nire inguruko gazteok behintzat, halako gertakariak, zuri beltzeko argazki edo dokumentalen bi-

# Uholdeak



"Izan gaitezen ura eta egin dezagun gainez, markatu eta mugatu dizkiguten ubideetan".

## ALAZNE ARRUTI

**"Izan gaitezen ur emari, uholde, elkarrekin.**

**Eragin ditzagun aldaketak kontzienteki eta gure boterearekiko beldurrik gabe"**

tartez ezagutu izan ditugula batez ere. Pertsona irribarretsu bat kamerari begira, asto bat gurdi bati tiraka kalea urez gainez den bitartean, autoak igerian hara eta hona...

Edota, besterik gabe, gertuko helduen memoria eta oroitzapenen bitartez ere jaso izan ditugu halako gertakariak akaso. Dena den, aldaketa klimatikoa dela eta gero eta maizago bizi ditugu halako muturreko egoerak gure azal propioan.

Eta pentsatzen hasia nago, hitz edo kontzeptu honi ere azkenaldian, ez ote diogun erantsi behar baina pisu ezkor eta naturaz gaindiko dimentsio

handiagoa.

Izan ere, uholdea, gure esku ez dagoen indar baten ideia izan daiteke. Kontrolarik kanpo geratzen zaigun indar natural bat. Eta normalean, geronek ezarritako muga edo markatutako bide bat gainditu ohi duena. Honenbestez, gure gaitzutatako zerbaiten erantzuntzat hartu genezake kasu gehienetan. Eta agian, horretxegatik zaigu horren beldurgarria bere izaera. Nahi bezala, ezin kontrola dezakegularako.

Baina ez dakit, funtsean, ez ote diogun erantsi, behar baina esanahi ilunago bat, zerbait gaizki egiten ari garenaren jakitun garelako. Merezki dugun hori, trukean jasotzen ari ote garen sentitzen dugulako. Naturari, eman baino gehiago kendu diogula jakin eta honen baitan epaitzen garelako.

Izan ere, ama lurra mugatu eta gure nahietara eraldatzeko joera, gero eta handiagoa de-

nez, horren aurrean are eta galera handiagoak jasaten ari gara. Eta gureganatu ditugun eta ez zegozkigun espazio horiek, bueltan itzultzeko ordua heldu dela dirudi.

Lehen, onura bat ekar lezakeenak, orain, galera besterik ez dakarkigula dirudi, eta aldatu den gauza bakarra, gure erabakien norabidea dela esango nuke.

Baina, hondamendi bat izateaz harago, konformatu ezinaren ikurtzat ere hartu genezake joera hau. Onartu nahi ez edo aldatu nahi den egoera baten aurreko ekin-tzat. Eta noiz edo noiz aldarrikatu izan dugu halako joerarik gure jarrera eta ekin-tzetan.

Beraz, zergatik ez dugu indartzen ideia honen alderdi hau? Erabili dezagun indar eredu hau, gure egunerokotasunaren edo gizarteko zati bat aldatu eta emankortzeko tresna moduan.

Izan gaitezen ur emari, uholde, elkarrekin. Zeharkatu eta blaitu dezagun gure ingurua ur-masa baten pare. Eragin ditzagun aldaketak kontzienteki eta gure boterearekiko beldurrik gabe.

Izan gaitezen aldaketarako bidea. Ez gaitezen konformatu eta elkartu gaitezen. Izan gaitezen ura eta egin dezagun gainez, markatu eta mugatu dizkiguten ubideetan.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

## Komikia



COVID PASAPORTERIK GABE ERE BIZITZA SOZIALA EGIN LITEKEEN TOKI BAKARRERA

ALEGIA, EROSKETETARA

NAHI BADUZU ETORRI

## Ika-mika

## Baimen informatua

**B**aimen informatua herriar guztiok dugun eskubidea da. Eta ezinbestekoa da mediku-esku-hartze orotan, eta are gehiago gaur egun egiten ari den esperimentazio medikoko tratamenduan. Txertoak ez dira nahitaezkoak. Covid-19aren aurka gaizki deitutako “txertoak”, medikuntzaren ikuspegi zorrotz batetik begiratuta, fase esperimentalean dauden medikamentutzat.

Joan den azaroaren 22an idazki hau sinatzen duenak, hitzordua eskatu nion nire lehen mailako arretako medikuari Osakidetzaren Usurbilgo ambulatorioan. Hitzordu horretan, idatziz eskatu nion nire medikuari baimen informaturako eskubidea erabili ahal izatea, “Covid-19 txertoa” izenarekin ezagutarazi den txertoari dago-

kionez.

Nire medikuak jakinarazi zidan, ohikoa ez den bezala, EZIN ZUELA SINATU eskatzen nion baimen informatuaren preskripzio medikoa, eta nire eskaera ofizialki erregistratu ondoren, Lasarte-Usurbilgo Lehen Mailako Arretako Unitateko buruari bidali ziola jakinarazi zidan, hau da, Amaia Gonzalez andreari.

Joan den abenduaren 3an, Amaia Gonzalez andreak telefonoz eta idatziz jakinarazi zidan, ohikoa ez den moduan, EZIN ZUELA BAIMEN INFORMATUA SINATU, ez eta nire eskaera aintzat hartu ere, eta osasun-erantzukizunetik kanpo geratzen zela, eta OSI-Donostialdea Integrazio Asistentzialeko zuzendariari bidali diola nire eskaera.

Hemen kontatzen ditudan

gertaerek frogatzen dutenez, gezurretan ari zaizkigu, eta gaizki deitutako “Covid-19 txertoak” ez direla seguruak gure etxe koentzat. Lehen Mailako Arretako osasun-arduradunak, azaldu beharko duten arrazoiengatik eta hemen salatzen dudun hipokresia profesionalagatik, ez daude prest Covid-19 “txertoek” sortu ditzaketan kalteengatik erantzukizunak beren gain hartzeko. Ondorio kaltegarri horiek ezagunak dira erregistro ofizialetan: Europako Eudravigilancen eta Estatu Batuetako VAERSen (Txertoei Erantsitako Gertaerak Jakinarazteko Sistema).

Estatu Batuetako VAERSek, 2021eko urrian, 16.766 heriotza eta 798.636 kontrako gertaera jasota zituen bere Erregistro Ofizialean, Covid-19 txertoak inokulatu ondoren. Eta Euro-

pan, 2021eko irailean, Eudra-Vigilance datu-basean 27.247 heriotza eta 2.563.768 lesio jasota zeuden Covid-19ko “txerto” esperimentalak inokulatu ondoren.

Baimen informatua zer den jakin nahi duenarentzat, artikulua hau argitaratzen den egunetik aurrera izango naiz, asteleheneetik ostiralera arratsaldeko 6etatik 7etara herriko frontoian. Nik emango dut Valerie Isabel Oyarzun Fontanet, Lleidako Probintzia Auzitegiko fiskalak egindako txostena, 108 orri-takoa, eta honako izenburua duena gazteleraz: “Inokulazioak 20/21. Haurtzaroen eta nerabezaroen; Adingabearen Goi-mailako Interesa gainetik jartzea” Txosten hori 2021eko urriaren 29an idatzi zen.

**Gabriel Valin**

## Ika-mika

## Erreskatea jaso ez dugunok ere sufritu dugu Covid-19a

**E**usko Jaurlaritzak erabaki du hedabide batzuei laguntzea Covid-19ak eragindako galerak apaltzeko, 5 milioi euroekin. Albisteak egoneza sortu du, inon ez baita azaldu zeren arabera eman zaizkien laguntza horiek hedabide batzuei, eta beste batzuei ez.

TOKIKOMen Administrazio Kontseilutik galdegin diogu Jaurlaritzari ea asmorik duen gainontzekook ere laguntzeko, eta erantzun horren zain gaude. Erantzuna jaso bitartean, ohar hau argitaratzea erabaki dugu.

Dirulaguntzak hedabideei emateak hizkuntza politika gaintzen du eta ondo irizten diogu, edozein enpresa edo sektore moduan behar baitu laguntza hedabideen sektoreak eta horrela jokatzeko da mun-

duko hainbat herrialdetan. Hedabideen kasuan, gainera, behar dira editorial ezberdinak dituzten hedabideak, behar ditu demokrazia sano batek.

Edozein industria arlo moduan hedabideena ere lagundu izana albiste ona da eta horretan sakontzeko deia egiten diogu Eusko Jaurlaritzari.

Hala ere, momentuz, Covid-19aren garaian, hedabide batzuen galerak estaltzeko jarri da dirua, eta, bistakoa da demokrazia sendo batek eskatzen duela hedabide guzti-guztiak laguntzea. Arrazoia oso argia da: Covid-19ak hedabide guzti-oi eragin digu. Datu horien berri badu Eusko Jaurlaritzak.

TOKIKOM osatzen dugun hedabideen kasuan, zailena zen momentuan ere mezu instituzionalak, osasunekoak eta oinarrizko beharrei lotuak zabal-

du ditugu kazetaritza egin eta zerbitzua emanez. Biak ala biak ziren garrantzitsuak, 200 profesional baino gehiagok eman zuten komeni zen zerbitzu esentzial hori eta irismena handia izan da, trafikoa ia bikoiztu eta 2.314.268 bisita jasotzeraino TOKIKOMeko hedabide digitaletan, esaterako.

Eman eta hartu. Herritarrek eskertu dute tokikoetan egindako lana eta datuak dira horren adierazgarri; erakundeek ez zuten berdina pentsatu, antza, pandemian egindako kanpainak eta publizitatea ia osotasunean egunerokoetara bideratu zutelako. Hala ere, espero dugu publizitatearekin ez bezala, laguntza puntual hauekin hedabideek pandemia honetan egindako lana aitortuko dela. Horixe da idatzi honen helburua: eskatzen dugu 5 milioi

bideratu dutenekin mahai batean jartzea, jaso ez dutenendako zer pentsatu den hitz egitea eta proposamen bat lantzea. Azkenik, baldintza berberetan dirulaguntza puntual bat adostea.

Covid-19a ez dute sufritu dirua jaso dutenek bakarrik; latza izan da kazetaritza egitea egun horietan eta egindako esfortzua aitortzea litzateke laguntza jaso ez dutenekin elkartu eta gaia lantzea. Hasieran esan dugunez, beraz, albiste ona da Eusko Jaurlaritzak hedabideen sektorea industria moduan kontuan hartu eta harentzako ere Covid-19 laguntza bereziak sortu izana. Eseri gaitetzen mahai baten bueltan eta adostu ditzagun sektore osoarentzako babesaren nondik norakoak.

**TOKIKOMen Administrazio Kontseilua**

# “Usurbilgo Lanbide Eskolan ikasketak bukatzen dituztenak nahikoa erraz lanbideratzen dira”

Iñaki Mujikak Lanbide Eskolako etapa guztiak ezagutu ditu. Hezkuntzan zein administrazioan. Pilatutako esperientzia ZubiGune fundazioan baliatzen du orain. Jubilatuta egon arren, bertako lehendakaria da. Beste saltsa askotako perrexila ere bada. Zumarte Musika Eskolako lehendakaria izan da denbora luzez eta politikan ere jardun du. Bitan izan zen zinegotzi Usurbilen, “1983-1987 eta 1991-1995 legealdietan”.



Usurbilgo Lanbide Eskolako zuzendaria izan zen hainbat urtez. Administrazioan ere aritu zen. Lanbide Heziketako sailburuorde izan zen Juan Jose Ibarretxekin.

**NOAUA!ren 25. urteurrenaren aitzakian, “Kafe garaia” izeneko elkarrizketa sorta abiarazi dugu. Ezer baino lehen, non zeunden duela 25 urte?**

**Iñaki Mujika:** 1996an Usurbilgo Lanbide Eskolako zuzendaria nintzen eta udal zinegotzi izatetik atera berria.

**Usurbilgo Lanbide Eskolako irakasle eta zuzendari izan zara. Bizitza erdia pasa duzu bertan. Nork piztu zizun irakaskuntzan aritzeko pasioa?**

OHOk ikasketak Usurbilgo LaSallen bukatu eta gero, Zarauzko Antonianos ikastetxera joan nintzen eta handik Arra-

**IÑAKI MUJIKA**  
**“Usurbilgo Lanbide Eskolako zuzendari kargua berritua nuen arren, Sabin Intxaurrek Eusko Jaurlaritzara joateko dei egin zidan eta ezin ezezkorik esan”**

sateko Eskola Politeknikora. Beraz, gazte-gaztetik Lanbide Heziketari lotuta egon naiz.

Ikasketen ondoren soldaduska egitea tokatu zitzaidan Madrilen. Eta handik etorri nintzenez, PRIJ enpresa osatu nuen beste lagun batzuekin batera. Pello Zubeldia, Roman

Manterola, Iñaki Mujika eta Jexus Sancho, hortik PRIJ (lau sortzaileen izenen lehen hizkiekin osatutako akronimoa). Orduan ere (1979. urtean), langabezia handia zegoen. PRIJ enpresarekin bakailao kokotxak atera eta saltzen genituen.

Hortan ari ginela, Pepe Fernandez irakaslea gerturatu zitzaigun egun batean, Madrilen Lanbide Heziketako oposaketak atera zirela eta ea animatzen ote ginen. Nik Madril ezagutzen zuen, soldaduska bertan egin nuen, eta animatu egin nintzen. Oposizioak prestatu eta 200 plaza horietatik bat eskuratu nuen. Bizitza al-

datu zidan. Loteria ederra!

**Bestelako ardurak ere izan dituzu. Eusko Jaurlaritzan Lanbide Heziketako zuzendari izan zinen hainbat urtez eta 2005ean sailburuorde kargua bereganatu zenuen, Juan Jose Ibarretxe lehendakari zela. Gobernuan izan zinen urte horietaz zer nolako oroitzapena gordetzen duzu?**

2001ean, Sabin Intxaurrek Hezkuntzako sailburua zela, Lanbide Heziketako sailburuorde bat sortzea proposatu genion HETELeke lehendakariak (Euskadiko Lanbide Heziketako Ikastetxeen Elkarte) eta biok. Goi kargu bat lortzea ez da erraza baina Juan Jose Ibarretxek onartu zuen. Usurbilgo Lanbide Eskolako zuzendari kargua berritua nuen arren, Sabin Intxaurrek Eusko Jaurlaritzara joateko dei egin zidan eta ezin ezezkorik esan. 8 urtez atzera eta aurrera ibili nintzen. Goizeko 8:00etarako Gasteizen izaten nintzen. Oroitzapen oso ona dut. Urtetan eta urtetan eskolatik eginiko hainbat eskaera martxan jartzeko aukera izan nuen, pentsa.

## “Gazte gutxi ditugu eta sektore askotan jendea behar da”

**NOAUA! Etorbizun hurbila itxaropentsu ikusten duzula kosta egingo da pandemia aurreko martxa berreskuratzea, ze inpresio duzu?**

**Iñaki Mujika:** Gure industria-sarea indartsua da, eta Lanbide Heziketarekin eta Lanbiderekin elkarlanean uste dut laster berreskuratuko dugula aurreko martxa. Nire beldurra da pertsona gutxi ditugula, gazte gutxi ditugula eta sektore askotan jendea behar dela.

**Elektrizistak eta berogailu zein galdara instalatzaileak, adibidez. Lanpostu horietan eskaera handia bada, gazteak zergatik ez dira lanbide horiek ikastera animatzen? Gaizki ordaindutako lanak direlako akaso?**

Gazteak gutxi dira eta jubilazio bidean direnak asko. Sektore horiek ez dira lan txarrekoak eta enpresek pertsona hauek nahi badituzte, eskaintza onak egin beharko dituzte. Dena den, eta nik ditudan datuen arabere-

ra, Usurbilgo Lanbide Eskolan ikasketak bukatzen dituztenak nahikoa erraz lanbideratzen dira.

**Gure garaian, Lanbide Eskola oso maskulinoa zen. Azken urteotan hobera egin al du egoerak?**

Garai batean Lanbide Heziketako eskaintza Elektrizitatea, Mekanika eta Administrazio izaten zen gehien bat. Beste eskaintza batzuk ere baziren

baina maila apalagoan. Mutlak gehiago batean Elektrizitatean eta Mekanikan aritzen ziren, eta neskek Administrazioa ikasten zuten.

Orain 23 familia profesional daude eta Erdi Mailako zein Goi Mailako formakuntza zikloak 100dik gora dira. Zerbait aldatu da egoera, baina egia da rolek hor jarraitzen dutela. Lan asko egin behar da familiekin, tutoreekin, lagunekin eta abar.

## “Zumarteren eraikin berriaren meritu osoa oraingo zuzendaritzarena da”

NOAUA! Usurbilgo Txistulari Taldearen kamiseta jantzita etorri zara. Txistulari Taldea izan zen, hain zuzen, Zumarte Musika Eskolaren sorrera sustatu zuena. Eraikin zaharrari agur ekitaldia egin zitzaionean, ikasle, irakasle eta gurasoen omenaldi beroa jaso zenuten. Nola oroitzen duzu egun hura? **Iñaki Mujika:** Egundik pozgarria izan zen eta, aldi berean, malkoren batek ere alde egin zidan. 32 urtez Zumarteren zuzendaritzan egoteak oroitzapen asko ekarri zizkidan gogora: hasierako ilusioa, bidean aurkitutako eta gainditutako eragozpenak, lan-talde bikain bateko giroa, hainbat eta hainbat gazte musika bidean jarri izana... Lasaitasuna ere hartu nuen, erreleboa bagenuela ikusirik.

Zumarte berritzeko eskaera aspaldikoa zen baina urteak joan, urteak etorri, eraikinak berdin jarraitzen zuen. Zahartuta eta intsonorizatu gabe. Askok kostatu al zen berritzeko urratsa ematea? Instituzio batetik bestera buelta asko



Zumarte Musika Eskolako sortzaileetako bat izan zen. 32 urtez Zumarteko zuzendaritzan hartu zuen parte.

### IÑAKI MUJIKA

*“Ezagutzen ez dutenek, mesedez pasa daitezela Zumartetik eta bueltatxo bat eman dezatela barruan. Ahal bada, ikasleak ari diren orduetan. Merezi du”*

eman beharko zenituzten, ezta?

Eraikin berriaren meritu osoa oraingo zuzendaritzarena da. Guk sortu genuen Zumarte eta hainbat urtez mantendu eta eraberritzeko eskaerak egin genituen, baina eraikin berria gauzatu bada, oraingo zuzendaritzari esker izan da. Talde bikaina da eta oso ondo ari dira. Udalak apustu serioa egin zuen hainbeste urteetako lana onartuz eta errekonozituz. Beraien meritua ere bada, noski.

**Kostata, eta atzerapenak atzerapen, eraikin berriaren diru Zumarteko ikasleak eta irakasleak. Ikusgarria da egoitza. Zumarte berritutik igarotzen zarenean, zer sentitzen duzu?** Erakustekoa dela. Ezagutzen ez dutenek, mesedez pasa Zumartetik eta bueltatxo bat eman barruan. Ahal bada, ikasleak ari diren orduetan. Merezi du. Oso ondo dago, bikain!

## “Kuadrillan inoiz aipatu izan dugu orrialde arrosak falta zaizkiola aldizkariari”

NOAUA! Euskararen normalizazioan eragiteko sortu zen NOAUA! Kultur Elkartea. He-dabide gisa, paperean eta sarean ari gara. Elkarte bezala,

kultura arloan eta aisialdian. Bistan da lan asko dagoela egiteko oraindik. Zure ustez, NOAUA!k zer du faltan eta zer du soberan?

**Iñaki Mujika:** NOAUA! aldizkaria sortu zenean, orduantxe nuen ikuspegia baino orekatuagoa ikusten dut. Nik gustura irakurtzen dut. Freskoa da.

Gure kuadrillan inoiz aipatu izan dugu orrialde arrosak falta direla, kar, kar, kar. Bromak aparte, ondo dagoela derizot.

  
**ADA**  
-MASAJEAK-  
633 36 22 33  
erreka-txiki 1, USURBIL

  
**Kima**  
MASAJE LEKUA  
·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

**ZALDIGAIN**  
ERREMENTARIA  
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.  
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak...  
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfn. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
Fax. 943300045

# Zubietako Herri Batzarra osatu zuten duela 25 urte

**D**uela 25 urte lortu zuen **Zubietak Herri Batzarra** osatzea, eta horixe nabarmendu zuten NOAUA!n abenduko lehen aleko azalean. Autonomia maila izan zuen 70eko hamarkadara arte, baina gero Zubietaren defentsan aritzen zen batzordea galdu zuen. 1992an Herri Batzarra sortzeko lehen urratsak eman zituzten, eta 1996ko abenduaren 15ean egin zituzten hauteskundeak Usurbil aldeko hiru hautagai-ekin eta Donostia aldeko sei hautagairekin.

**Baleriano Sagardia** herritarrak

100 urte bete zituen eta alkaterean bisita jaso zuen.


Garai hartan bazen gaixotasun bat jendea bereziki kezkatuta zeukana: **HIESA**. **Joxe Ramon Furundarena** hematoloak azalpenak eman zizkion NOAUA!ri gaixotasunaren nondik norakoak azaltzeko, eta odol emaile eta hartzaileen artean zeuden beldurrei buruz mintzatzeko. Izan ere, **Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak** 30 urte bete zituen garai hartan, eta HIESAren gaiak jende asko beldurtuta zeukan odola ematea segurua ez zelakoan. Herri inkesta egin zuten gaiaren in-

guruan, eta herritarrak odola ematearen alde agertu ziren, batik bat.

Udalean ere erabakiak hartzeko garaia zen, orain ongi asko ezagutzen dugun **UEMA** mankomunitatean parte hartu edo ez erabaki behar baitzuen Udalak.

**Etumeta AEK Euskaltegian** lehenengo txiste afaria ere antolatu zuten. Kiroletan, lau terdiko txapelketaren finalak bazuen bikote irabazlea: **Inaxio Arruti eta Koldo Lertxundi bikotea**.

Judoan, berriz, **Anartz Aizpuruak** 19 urtez azpiko Espai-



1996ko abenduaren 6ko portada.

niako Judo Txapelketan hartu zuen parte.

## Duela 25 urte

**NOAUA! 9. zenbakia** 1996ko abenduaren 6an.

## Joxe Mari Beristain: "Bertso zaharrak botatzea gustatzen zait"

**K**alezarren jaio zen duela 44 urte. 3 seme-alabetatik zaharrena da. Mutil zaharra. Jose Maitxo deitzen diote eta honnek ez dio minik egiten, izan ere, denek honela deitzen diote. Neskazale porrokatua da, Peña Pagolara joaten bazara, ez da handik urruti ibiliko.

**NOAUA! Ikasten ibili al zinen?**

**Joxe Mari Beristain:** La Sallen ibili nintzen, baina 14 urte bete eta hurrengo egunean lanean hasi nintzen. Gutxi ikasten nuen, zigortuta nengoen beti.

**Zer egiten zenuen, bada?**

Etxetik atera eta eskolara ez joan. Askotan Txokoaldeko zubira joaten ginen ni eta Juan Anton lehengusua zigarroak erretzera. "Peninsula" erretzen genuen, merkeena.

**Maisuekin ondo konpontzen al zinen?**

Batzuekin bai eta besteekin ez. "Hermano Benancioekin" gaizki. Hark erregelarekin jo-

zuten ninduen eskuan, hatzak mindu arte. Geroztik, surtidorean egon zen hura, han ikusi eta zera esan nion: "Gogoratzen al haiz zer zartadak ematen hizkidan?". Berak hitzik ere ez.

**Orduan diplomarik ez zenuen aterako.**

Bai ederra. "Hermano Josek" etxean txerria hil genuelako eman zidan diploma.

**Usurbilgo alkate izango al zinateke?**

Bai gustura, kobratzeagatik bakarrik. Lan gutxi egingo nuke eta azkar kobratu.

**Beste ezer ere ez?**

Orain arteko alkateek asko egin al dute, bada? Lapurtu besterik ez dute egin-eta.

**Gogoratzen al duzu orain arte egin duzun parrandarik handiena?**

Nola gogoratuko naiz, bada? Hiru egun etxera etorri gabe egin genituen Troiak, Arrantzale zenak eta hirurok. Hauek biak osorik iritsi ziren etxera, baina ni hiru saiheits-hezur hautsita.

**Zenbat parranda egin dituzu?**

Horma apurtzeko adina. Lehen, parranda egin ondoren, zuzenean Mai-Onara lanera joan ere bai. 12 ordu egiten nituen lan, eta inor ez zen konturatzen lo egin gabe nengoela. Baina hori 25 urte nituenean, behin hortik aurrera... Autoaren motorra bezala da pertsona, pixkanaka-pixkanaka gastatu egiten da.

**Jateko zer duzu gustokoen?**

Haragia. Arraina gehiago harripatuko ez balute hobe.

**Gosaria, bazkaria ala afaria nahiago?**

Denak onak. Hala ere, hamaketako ona hobea da bazkari txarra baino.

**Bazkaldu ondoren siesta?**

Batzuetan bai, aspaldi egin ez badut ere.

**Noiz ezkondu behar du Joxe Maitxok?**

Ezkontzeko emakume aberatsa behar dut, eta lan egiten duena. Jatekoa nik prestatuko diot, baina ondoren lanera, ni mol-datuko naiz gero.



Joxe Mari Beristain.

**Bertsolari ona omen zaitugu.**

Goizeko ordubietatik aurrera. Behin ordu batzuen ondoren, aurkaririk gabe geratzen naiz ni. Bertso zaharrak botatzea gustatzen zait.

**Ardozalea, sagardozalea, txakolinzalea eta gainera, muslari ezin hobea.**

Arrazoi duzu. Denek nirekin jokatu nahi dute. Orain dela urte batzuk Santuenean arku-me bat ere irabazi genuen.

**Usurbildik kanpo non izan zara urrutien?**

Bartzelonan. 16 urterekin Mai-Onako kamionero batekin joan nintzen. Bertan hasi nintzen 'kultura zabaltzen'.



# Ofizioen Gida



PLAKODUR  
Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
urdaintzi.euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK  
· BERRITZE LANAK

Josue  
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60  
Atallu pol. atallu, 28  
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

**Uraitz, s.l.**



Telefonoa  
693 059392

e-posta:  
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behea, Lasarte-Oria



· gremioen  
koordinaketa  
· berritze lanak  
· sukaldeak  
· komunak

943 530 337  
607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

**IRUARKAITZ**  
ERAIKUNTZAK, S.L.

· FATXADAK ETA TEILATUAK  
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK  
· URALITA KENTZEKO ENPRESA  
· BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38 - 628 45 78 39 - 628 91 72 15  
reformas@reformasmonroy.com

NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

**Antonio**  
**URRUSOLA**  
**AROSZTEGIA**

Tel/Fax: 943 376 415  
Asteasuain Industrialdea, 3

**BARRENETXE**

Salsamendi Arregi, Iñaki  
AROSZTEGIA

943 362 664

Barren Etxe kalea ZUBIETA



ZURGINTZA-SUKALDEAK  
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net | jr.ibargoien@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76

**ARGILAN**

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859  
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

antenas  
**Telemar**

943 55 33 99  
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI

**APARICIO**  
DEKORAZIOA ETA  
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943

Puntapax, 3 - 3 B 20170 USURBIL

**Enrique Alonso**  
ITURGINTZA  
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak  
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa  
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

**Iñaki**  
Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA  
ZORU BERO-EMALEA  
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITZAGARRIAK  
info@inakilurgintza.com - www.inakilurgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

**Zuri**  
arrain  
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465  
zuriarrainiturgintza@gmail.com

**Rafa**  
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK  
· KONFINDATZAZKO GREHIOAK · KOKUHEKO ALTZARIAK

Bordaberni kalea 1, 1 behea • 943 36 80 04

**ANORGA TXIBI S.L.**  
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak  
· beira bikoitza · segurtasun beirak  
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

**maiz**  
hornigaiak

· TRESNERIA ETA ERREMINTAK  
· EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)  
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39

## Antonio Eizagirre: “Aurtengo aleak oso itxura ona du”

**N**OAUA! Kultur Elkarteak urtero antolatzen du San Tomas azoka, eta horrekin batera babarrun eta sagardo lehiaketa ere bai. Joan zen urtean, babarrun lehiaketan garaile izan zen Antonio Eizagirre, Aldapa baserrikoa.

**NOAUA! Joan zen urtean, NOAUA!k urtero San Tomasean antolatzen duen babarrun eta sagardo lehiaketan garaile izan zinen babarrunean. Aurtengo ere parte hartuko duzu?**

**Antonio Eizagirre:** Bai, badut parte hartzeko asmoa aurtengoan. Oraindik babarruna ez dut prestatu horretarako, baina parte hartzaileen artean egongo naiz, bai. Orain babarruna aletzen ari naiz, gero bereiztu eta txukunenak NOAUA!ra eramateko.

**Nolako babarruna da aurtengoan?**



Igande honetan ospatuko da San Tomas azoka Usurbilgo frontoian. Iazko edizioan, Antonio Eizagirre izan zen babarrun onena.

### ANTONIO EIZAGIRRE

**“Nik dauzkadan babarrun alerik onenak eramango ditut San Tomas azokako lehiaketara”**

**goa?**

Oso itxura ona du aurtengo aleak, edo nireak bai be-

hintzat. Hala ere, aurtengoan ere nahiko berezia dela uste dut. Joan zen urtekoa nahiko kaxkarra izan zen orokorrean. Hazia egiterako garaian eguraldi txarra tokatu zen eta lorea ere berandu atera zen. Udazkenean, berandu hasi ginen biltzen eta oraindik ongi heldu gabe zegoen biltzerako

garaian. Aurtengoan, berriz, ale beltz-beltz batzuk ere badaude, baina orokorrean nahiko ale gorrixkak izango direla iruditzen zait.

**Joan zen urtean bai, baina gehiagotan ere irabazi izan duzu?**

Etxean beste txapela bat ere badaukat, baina nahiko aspaldikoa da. 2008an lortu nuen txapela babarrunarekin, eta beste urte batzuetan ere sariaren bat irabazi izan dut. Sagardoarekin urtetan irabazi dudala uste dut.

**Irabazteko aukerak dituzula uste duzu?**

Nik ale onak dauzkat, baina besteek ere agian oso urte ona izango zuten. Nik dauzkadan alerik onenak eramango ditut eta saiatuko naiz irabazten, baina onenak irabaz dezala!

## Imanol Zarautz: “Arbasoen usadioak jarraituz egiten da sagardorik onena”

**NOAUA! Joan zen urtean, NOAUA!k urtero San Tomasean antolatzen duen sagardo lehiaketan garaile izan zinen. Nolako sagardoa da aurtengoan?**

**Imanol Zarautz:** Joan zen urtekoaren oso antzekoa dela esango nuke nik. Etxerako, behintzat, gure gustuko sagardoa egitea lortu dugu. Freskoa eta ona etxe batean kontsumitzeko. Publikoarentzat ona izango den? Zaila da denek gustukoa egitea, baina guretzat ona dago.

**Zein da zure sekretua?**

Garbitasunean dago sekretua, nire ustez. Horri garrantzia handia ematen diogu, eta mimos lan egiten dugu. Sagastiak ondo zaindu behar dira sagardo ona egiteko, eta sagarrak biltzetik sagardoa egitera datuen prozesua ere zaindu egin



Sagardo on bat lortzeko “garbitasunean dago sekretua”, Imanol Zarautzek adierazi digunez.

### IMANOL ZARAUTZ

**“Urtetik urtera geroz eta sagardo hobea egiten du jendeak”**

behar da. Ilbeherak eta ilgorak kontuan izanda, gure arbasoen usadioak jarraituz egiten da sa-

gardorik onena.

**Aurtengoan ere irabazteko aukerak dituzula uste duzu?**

Zaila da esaten. Usurbilen maila handia dago sagardoa egiten duten baserrietan. Oro har, urtetik urtera geroz eta sagardo hobea egiten du jendeak.

## Igandean San Tomas Azoka, prebentzio neurrien artean

NOAUA! Kultur Elkarteak prest du iazko etenaldiaren ostean, plazara bueltan datarren San Tomas Azoka. Igandean, abenduaren 19an ospatuko dugu goiz eta eguerdi partean frontoian, oraindik atzean utzi ezin izan dugun osasun krisialdia tarteko, prebentzio neurrien artean.

**Hainbat postu frontoian**

Frontoian aurkituko dituzuen zirkulazio arauak segi, musukoa jantzita eraman eta jendea pilotzea ereagotzi. Hainbat postu aurkituko dituzue. Sagardo eta babarrun txapelketen sari banaketa ospatuko da, Euskal Herriko 4. Egurrezko Sagardoaren Lehiaketarekin batera.

# noaua



Askorako eman dute 25 urtek. 1996. urtean usurbildar askoren inplikazioari esker izugarritzko bultzada izan zuen Noaua Kultur Elkartearen sorrerak.

Herria Herritik egiteko bultzada jaio zen usurbildarren bihotzetik eta eskuz esku mantendu da indar hau denbora guzti honetan zehar.

## HARTUKO DUZU ERRONKA? EGIN BAZKIDE!

Zurekin batera beste 25 urte (gutxienez) Herria Herritik egiten jarraitzeko erronkan parte hartzea animatu nahi zaitugu.

**40€  
URTEAN**

30 urte baino gutxiago dituzu? Bazkide izatea erraztu nahi dizugu!  
**25 € / URTEAN\***  
\* 30 urte betetzean automatikoki bazkideztza arrunta (izatera pasako da).



ESKANEATU

## ABANTAILAK

Abantaila nagusia herriarentzat izango da. Noaua Kultur Elkartea eragile garrantzitsua da herriko bizitza kulturala, aisialdiko, etabar bizirik mantentzeko. Baina zuk ere abantaila batzuk izango dituzu:

- Zozketak.
- Deskontuak kultur ekimenetako sarreretan.
- Datorren urteko errenta aitopenean hobaria jasoko duzu.
- Usurbildik kanpora bizi diren herritarrei, aldizkaria astero posta arruntez jaso aukera.

## ZOZKETA

Abendura bitarte bazkide egiten bazara, Usurbilgo komertzioetan erabiltzeko 150 €-ko erosketa bonoaren zozketan parte hartuko duzu.

# TXAPELDUN JATETXEA



EGUNEKO MENUA  
ASTEBURUKO MENUA  
PINTXOAK  
PLATER KONBINATUAK  
OGITARTEKOAK-RAZIOAK  
HANBURGESA BEREZIAK

Zatoz gure platerak  
dastatzera!



eramateko erel

943 21 34 03 638 16 54 67

MUNA LURRA 2, USURBIL

# BAZKIDEEEN TXOKOA

noaua! euskararen aterpe



## GABONETAKO ZOZKETAK



Lau saski zozketatuko ditugu

Bi saski 2021ean zehar  
publia jarri dutenen artean  
eta beste bi  
NOAUA!ko bazkideen artean.



# Kafe Tertuliak eraso eta bizipen larriak plazaratu ditu audio bidez

**E**makumeenganako In-darkeriaren Kontrako Egunaren harira, herriko emakumeen eraso eta bizipenen bilketa egin zuten Usurbilgo Kafe Tertuliako kideek, “gure inguruan ere erasoak gertatzen direla ikusarazteko”. Jasotakoa, bizipen eta eraso larriak, audio bidez kaleratu zuten. Lerrootan bilduma bat.

## Azaroak 25, bizipen eta erasoen bilketa

■ “20 urte ditut eta 12 urte nituela babarrun errotondan zebra bidea gurutzatzeko zain nengoela furgoneta txuri bateko gidaria oihukatzen hasi zitzaidan. “Acércate, ven aquí” eta antzekoak esan bitartean besoekin gerturatzeko keinuak egin zizkidan. Gaueko 22:00ak inguru ziren eta euria egiten zuenez, inguruan inor ez ze-



Kafe Tertulia taldeak azaroaren 25ean eman zituen aditzera.

### LEKUKOTZA BAT

**“32 urte ditut eta 31 urterekin bikote-kide ohiarekin eztabaida batean, saihetsetan jaso nuen bere aldetik kolpea”**

goela ikusita korrika alde egin nuen kaxko aldera.”

■ “19 urte ditut. Duela gutxi

Donostiako taberna batean Realaren partida bat ikusten ari nintzela koadrilako birekin, tipo bat besoa laztantzen hasi zitzaidan. Tipoarengandik aldentzen nintzen eta bera berriro nigana pegatzen zen, gerria ukitu zidan momentura arte. Hor jada tabernatik negarrez atera nintzen inpotentziagatik eta nire koadrilako bat tipoari gauza pare bat esan eta nigana

etorri zen”.

■ “31 urte ditut eta ez dut ongi oroitzen adina, baina 13 urte inguru nituela nire amaren osaba zein ederra nintzen esaten hasi zen eta bularra ukitzen saiatu zen. Berehala erreakzionatu eta aldendu egin nintzen eta berak ez esan haur zure amari esan zidan. Nik korrika alde egin nuen eta zorionez gurasoei esatera ausartu nintzen. Oraindik ere pentsatzen dudanean tripak mugitzen zaizkit”.

■ “32 urte ditut eta 31 urterekin bikote-kide ohiarekin eztabaida batean, saihetsetan jaso nuen bere aldetik kolpea”.

Testigantza gehiago [www.noaua.eus](http://www.noaua.eus) web orrialdean jaso ditugu.

# betiON

## GARA



10 urte zure ondoan

**betiON, Euskadiko Telelaguntza Zerbitzu Publikoaren medaila gorriak segurtasuna eta lasaitasuna eskaintzen digu eguneko 24 orduetan.**

**Argibide gehiago hemen:**  
[www.euskadi.eus/betion](http://www.euskadi.eus/betion)  
**900 851 600**  
**012 Zuzenean**

Euskadi, auzolana



ERREPUBLIKAN, AURKATU  
ETIAZ GAITZETU ETIAZ GAITZETU



ERREPUBLIKAN ETIAZ GAITZETU  
ERREPUBLIKAN ETIAZ GAITZETU



**Xabier Lapitz: Kazetaria**  
**Itziar Aizpuru: Aktorea**

## Pirritx, Porrotx eta Marimotots Oiardon arituko dira abenduaren 29an

**P**irritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen lan berri bat plazaratu dute: 'Kuikui' liburu-diskoa. Txorien kantuen bitartez, naturaren eta euskararen aldeko mezua zabaldu nahi dute.

"Kuikui" ikuskizun berria Miren Amurizaren ipuin batean oinarritzen da. Irrimarra taldeko Karmele Gorroño eta Irene Irureta arduratu dira ipuina ilustratzeaz. Eta beste behin ere, abestiak dira kontakizunaren osagarri. Xabier Zabalaren 12 abesti jaso dituzte CD batean, horietatik bost argitalpen honetarako propio idatziak.

Pailazoen aditzera eman dutenez, "habia-kutzak oparitu dizkiegu egunerokotasunean txorientzat zein euskararentzat habia goxoak sortzen dituzten taldeei".



"Kuikui" ikuskizuna aurkeztera hurbilduko dira kiroldegira. Bi saio eskainiko dituzte, 16:00etan eta 18:30ean. Sarrerak abenduaren 17an jarriko dira salgai.

### PAILAZOEN EMANALDIA

Sarrerak Internetez salduko dira: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus)

"Kuikui" ikuskizuna

- Abenduak 29 asteazkena.
- Non: Oiardo Kiroldegian.

■ Bi saio: 16:00etan lehen, 18:30ean bigarrena.

■ Sarrerak: 8 euro, usurbilkultura.eus plataforman. Abenduaren 17tik aurrera ipiniko dira salgai.

■ Antolatzaileak: NOAUA! Kultur Elkarte eta Udala.

### Zumarteko kontzertuak

Santa Zezilia ospatzeko kontzertuak bertan behe-ara utzi behar izan zituzten. Egunotan egingo dira.


**Abenduak 15 asteazkena, ikasleen kontzertua Sutegin**  
18:30ean hasiko da. Gonbidapen eskuratu behar da usurbilkultura.eus webgunean. Edukiera mugatua da eta musukoa derrigorrezkoa.

**Abenduak 16 osteguna, kalejira**

18:30ean, talde instrumentalen eta triki-pandero taldeen kalejira herrian barrena.

**Abenduak 22 asteazkena, abesbatza taldeen txanda**

Zumarteko Abesbatza guztiak Salbatore Elizan elkartuko dira. 18:30ean hasiko da emanaldia. Edukiera mugatua, musukoa derrigorrezkoa izango da.



Pirritx, Porrotx  
eta Marimotots

# KUIKUI

Abenduak 29, asteazkena

1. emanaldia: 16:00  
(ate irekiera, 15:30)

2. emanaldia: 18:30  
(ate irekiera, 18:00)

Oiardo Kiroldegian

Sarrerak: 8€ [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus)  
plataforman abenduak 17tik aurrera.

**noaUA**




Usurbilgo Udala

# Errioak gainezka egin zuen



Errioak lanak izan zituen aurreko asteko euri-jasa amaigabeak irensteko. Urak bere bidea hartu zuen abenduaren 10ean, ahal zuen tokitik. Erriberak hartu zituen gehienbat, etxe atari batzuetan ere sartu zen, eta ez Troian bakarrik. Irudi ikusgarriak utzi zizkigun aurreko asteko denboraleak.



## *Usurbilgo "Herriko Etxea" Sari Nagusia*

Sari banaketa Usurbilen burutuko da, 2021eko abenduaren 19an Usurbilgo SAN TOMAS azokan

Euskal Herriko edozein sagardogile edo muztioegilek parte har dezake, lanbide duenak edo ez, sagardotegietakoak bezala etxerako egiten duenak ere.

Sariak honoko hauek izango dira:

- LEHENENGO SARIA: Usurbilgo Herriko Etxea Saria diren 800€ eta Sariaren Ziurtagiria
- BIGARREN SARIA: Alkartasuna Kooperatibaren Saria, 250€ko txartela sagardogintza materialetan gastua egiteko eta Sariaren Ziurtagiria
- HIRUGARREN SARIA: Alkartasuna Kooperatibaren Saria, 100€ko txartela sagardogintza materialetan gastua egiteko eta Sariaren Ziurtagi

oinarri guztiak [alkartasuna.eus](http://alkartasuna.eus) web orrialdean

**Zentzuz erosi.**  
**Ondo informatu zaitez.**  
**Ezagutu zure eskubideak.**  
**Baztertu estereotipoak.**

**Zeu zara**  
**zure**  
**influencer**  
**onena.**  
**#KontsumitzenJakin**

**kontsumoBIDE**  
 KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA  
 INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

*Euskadi, auzolana*

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

TURISMO, ARTZAGARITZA  
 ETA KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
 COMERCIO Y CONSUMO



Gipuzkoako  
 Foru Aldundia  
 Diputación Foral  
 de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA  
 ORAIN**  
 Es futuro

**TicketBAI**  
 Etorkizunerako prestatzen.



2022an, **TicketBAI** Gipuzkoara iritsiko da. Etorkizunerako prestatzen gaituen online fakturazio-sistema berria.

**Anima zaitez zure enpresan edo negozioan borondatezko epean ezartzera eta ezagutu kenkariak eta abantailak.**

**Informa zaitez**

-  [gipuzkoa.eus/ticketbai](https://gipuzkoa.eus/ticketbai)
-  Aurrez aurreko informazioa (hitzordua)
-  943 113 000
-  [ticketbaikontsultak@gipuzkoa.eus](mailto:ticketbaikontsultak@gipuzkoa.eus)



**TicketBAI**  
 GIPUZKOAN | EN GIPUZKOA

[gipuzkoa.eus/ticketbai](https://gipuzkoa.eus/ticketbai)



# Covid-19ak hildakoen omenaldia, bertan behera

Usurbilgo Udala larunbat honetan egitekoa zen Covid-19ak hildako herritarren omenezko ekitaldia, baina azken orduko ezusteko bat tarteko, bertan behera utzi behar izan dute. Azaldu dutenez, data berria zehaztu orduko iragarriko dute.

Bizkarreko parkea Covid-19ak hildako usurbildarrak gogoratzeko leku iraunkor izan dadin nahi du Udalak, eta horretarako, eskultura bat jartzekoa da. “Ekitaldia eskultura horren inaugurazioarekin batera egin nahi dugu, baina ez da posible izango datorren larunbatean. Aurrerago jakinaraziko dugu data berria”.

## Udal ekipamendu publikoetako edukiera %60ra murriztua oraindik

Osasun larrialdi egoeran gara hilabete hasieratik, Covid-19 ziurtagiria ere eskatzen hasiak dira zenbait guneeetan. Usur-



“Ekitaldia eskultura baten inaugurazioarekin batera egin nahi dugu, baina ez da posible izango datorren larunbatean. Aurrerago jakinaraziko dugu data berria”, Udalak aditzera eman duenez.

## UDALAREN NAHIA

**“Bizkarreko parkea Covid-19ak hildako usurbildarrak gogoratzeko lekua izatea nahi du Udalak”**

bilan Udalak azaroaren 19an udal ekipamendu publikoetako edukiera %60ra murriztea erabaki zuen prebentzio neurri gisa hamabost egunez. Neurri honekin zer egin berri-kustekotan geratu ziren gero.

Koronabirusaren intzidentziak nabarmen egin du gorantz ordea asteotan eta abenduaren 6an aipatu murrizketa hau beste bi astez aplikatzen jarraitzea erabaki zuten. “Azaroa erdialdean izan zen agerraldi bat tarteko hartu zuen Udalak ekipamendu publikoetako edukiera %60ra jaisteko erabakia. Bi astetarako ezarri zuen neurria, eta ordutik Covid-19arekin lotutako kasu positiboak gehituz joan direnez, neurri eustea ebatzi du Osasun Sailak

emandako datuak jaso bezain pronto”, ohartarazi du Udalak. Datuei adi jarraitzeko asmoa du Udalak, “horren arabera erabakiak hartzeko”.

## Egutegi alternatiboaren alde

Abenduaren 3an itxita eta hilaren 6an zabalik. Halaxe zeuden Udarregi Ikastola eta hainbat udal zerbitzu aipatu bi egunotan. Abenduaren 3a Euskararen Eguna zen eta jai egun gisa seinalatua zuten egutegian, abenduaren 6a “ofizialki” jai eguna izan arren, lan egin zuten bai ikastolan, udalean, Potxoenean, Oiardo Kiroldegian edota Sutegi udal liburutegian. Lan egutegi propioaren aldeko adierazle argia.

## 2022rako udal aurrekontuak alegazio epean

Azaroaren 25eko udalbatzarrean hasieraz onartu zituzten 2022rako udal aurrekontuak alegazio epean izango dira urtarilaren 3ra arte. Epe hori igarota erreklamaziorik ez bada, behin betiko onartutzat joko dira.

## Herri Txiki-koak Zubietan



‘Herri Txiki, Infernu Handi’ telebista saiokoak Zubietan izan dira azken asteotan. Aurrerago eskainiko dute saioa ETB1en.

“Herri Txiki, Infernu Handi” saioko lan taldea Zubietan izan da azken asteotan. Hainbat herritarren lekukotza eta irudiak bildu dituzte. Azken grabaketa saioa abenduaren 2an egin zuten Zubietako frontoian saioko

aurkezle Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadirekin.

Zubietari eskainitako saioa aurrerago ikusi ahalko da ETB1en. Asteazken gauean eskaintzen dute umorezko saioa, gaueko 22:30ean hasita.

## Umeentzako saioa Aginagan



Glu Glu konpainia Aginagan izango da larunbat honetan. ‘Botadun katua’ antzezlan eskainiko du; 3 eta 9 urte arteko umeentzako egokia.

## Abenduak 18, larunbata

■ 18:00 “Botadun katua” antzezlan Aginagako Eliza Zaharrean. Charles Perraultek jasotako ipuin klasikoaren moldaketa. Sarrera: 3 eurotan Arraten salgai.

## Abenduak 23, osteguna

■ 18:00 Olentzerori harrera Sekañako bidegurutzean. Gero Eliza Zaharrera; bertan gutun bilketa eta gaztain jana. Antolatzailea: Antxomolantxa Elkarte.

# Ekimen eskaintza zabalarekin, herria argiztatzera

Urte bukaerarako hainbat ekimen iragarri ditu Hurbilago Usurbilgo ostalarien eta merkatarien elkarteak. Argiztatu herria kanpainaren bueltan, argiekin egokitutako etxolak dauden biribilgunean hainbat ekimen iragarri ditu herri bilguneak.

## Gabonetako Zozketa

Hurbilagoren dendetan erosketak egitearen truke, 30 euroko 30 erosketa bonuen zozketan parte hartzeko aukera. Denda bakoitzak bonu bat zozketatuko du bertan erosketak egin dituztenen artean.

## Abenduak 21, asteartea

### Gabonetako Parkea frontoian

16:00-21:00 Azaroaren 28ko Udazkeneko Azokan bertan behera utzi zuten haurren jolasak, Hurbilagoren Gabonetako Parkea frontoian. Sarra: dendetan eginiko erosketa bidez Udazkeneko Azoka egun hartarako 10 puntuak bilduta izanez gero sarrera doan. Bestela unean bertan sarrera erosketeko aukera.



Urte bukaera bitarte hainbat ekitaldi antolatuko ditu Hurbilagok.

## ABENDUAK 21 ASTEARTEA

**Gabonetako Parkea frontoian egingo da, 16:00-21:00 artean**

## Abenduak 24, ostirala

### Olentzero eta Mari Domingi

Olentzeroren etorrera, beste eragileen artean, Hurbilagoren eskutik. Olentzero eta Mari

Domingiri idazteko gutunak eskuratzeko aukera Hurbilagoren dendetan eta postontziak herrian zehar.

## Abenduak 31, ostirala

### San Silbestre lasterketa

17:00 Hurbilago San Silbestre lasterketa Usurbilgo frontotik. Izen ematea egunean bertan frontoian 16:00etan hasita

edo Hurbilagoren saltokietan. Lasterketa amaieran, sarien zozketa parte hartzaileen artean; mozorro onenari sari berezia.

■ Abenduaren 31ra arte xahutu ditzakete 5 euroko bonoak azaroaren 28ko Udazkeneko Azokan herriko saltokien postuetan erosketak egin zituztenek.

## Korrikaren materiala salgai



Etumeta AEK euskaltegian edo korrika.eus orrian eskura daiteke materiala.

Martxoaren 31n Amurrión hasiko den 22. Korrikarako prestaketa lanak martxan dira aspaldi. Euskararen aldeko lasterketa laguntzea xede duen materiala salgai jarri dute. Usurbilen Etumeta AEK euskaltegian (abenduaren 22ra arte

eta gero, urtarrilaren 10etik aurrera): tamaina ezberdinetako kamisetak, biserak, lepokoak, giltzarrapoak... Internet bidez, korrika.eus atarian ere eskura daitezke. Edo baita euskaltegiak igandeko San Tomas Azokan jarriko duen postuan.

## Beste garaipen bat Pagazperentzat



Aingeru Semperena, Mikel Merino eta Beñat Lizasok jokatu zuten finala.

Joan zen igandean jokatu zen Iruñako Labrit pilotalekuan Espainiako gurgildun aulkian palaz txapelketako finala. Pagazpe Elkarteko hiru jokalaririk izan ziren lau finaleraino.

Asier Navaridasek eta Beñat Lizasok, Aingeru Semperena

eta Mikel Merinoren aurka neurtu zituzten indarrak. Irabazleak azken biak izan ziren, Aingeru Semperena eta Mikel Merino. Bi jokutan egin zuten finala. Lehen jokua 10-7 amaitu zen, eta hurrengoa, berriz, 10-6.

# Santueneko Gabonetako azoka larunbat honetan egingo da

**G**abonetako Azoka egingo dute Santuenean abenduaren 18an, arratsaldean. Hasiera batean, hilaren 11n egitekoak ziren, baina eguraldi txarraren aurreikuspenak astebete atzeratzera bultzatu ditu antolatzaileak.

Artisau azoka izango da, gabonetarako opariak edo produktuak erosi eta auzoko zein herriko artisauek euren produktuak saltzeko aukera izango dute bertan.

## Denetarikozko postuak

8-9 bat etxolatan, auzoko artisauen produktuak jarriko dituzte salgai: pomadak, xaboiak, gantxiloz egindako produktuak, fruitu lehorrak, argazkiak eta kuadroak, diru-zorrokoak, loreak...

Janaria ere banatuko dute: txorizoa, txokolatea, gaztai-



Artisau ugari batuko dira azokan. Argazkia, artxibokoa. Egilea: Ion Markel Saez de Urabain.

## AZOKA

**Etxolatan antolatuta, auzoko artisauen produktuak jarriko dituzte salgai. Dj GorkaMendik girotuko du azoka**

nak... Denetarikozko postuak egingo dira azokan. Reyki

saioa ere aurreikusi dute. Musika ere zuzenean jarriko dute DJ GorkaMendiren eskutik.

## Bigarren eskuko produktuen bilketa

Bigarren eskuko gauzek ere lekua izango dute azokan, bazar solidarioan. Auzoan eta herrian hainbat pertsonak izan ditzaketen premiak asetu nahi dituzte, eta horretarako,

bigarren eskuko produktuen bilketa egin dute Santuenean. Lortutako produktuak prezio txikian salgai jarriko dituzte, edonoren eskura egon daitezzen. 21ean ere, San Tomas egunarekin bat, arropa eskuratzeko aukera izango da. Soberan geratzen direnak, Caritasi eskainiko dizkiete.

## Zuhaitzaren piztuera ere larunbat honetan egingo da

Urtero legez, gabonetako zuhaitzaren piztuera aurreikusi dute Santuenean. Larunbat honetan, hilaren 18an izango da. Ohi bezala, zuhaitza eta gabonetako apaingarriez josiko dute auzoa, eta arratsaldeko 18:30ean piztuko dute zuhaitza gabonei ofizialki hasiera emateko. Ekitaldi horretan izango da auzoko DJa, GorkaMendi, hitzorduari erritmoa emateko.

# Urbil, Kilometroak 2022 edizioaren babesle

Urbilek, Kilometroak 2022 edizioaren kolaboratzaile gisa, gune bat jarri zuen abenduaren 3an eta 4an merkataritza-gunean. Urbil Kilometroak-ekin elkarlanean ari da euskararen erabilera sustatzeko eta tokiko kultura, euskara eta inguruko eragileak babesteko. Horregatik ipini zuen Urbilek gune bat propio, Ibarrako ikastolak euskararen hedapenean eta erabileran laguntzeko dirua biltzen jarrai dezan.



2022ko Kilometroak Ibarran egingo da. Urbil laguntzaile gisa ari da parte hartzen. Bestetik, Urbil Orioren babesle izango da beste denboraldi batez.

## Miriam Arrillaga Beloki, eskuz banakako finalean

Finalerdietan Olatz Arri-zabalagari 22-15 irabazita, eskuz banakako Master Laboral Kutxa txapelketaren final handirako sailkatu da Miriam Arrillaga Beloki.

## ETB-k eskainiko du

Igande honetan jokatuko du finala Mungian. Amaia Aldaiekin lehiatuko da. ETB-k zuzenean eskainiko du.

Zuen  
publizitatea  
hemen

943 360 321  
publizitatea@noaua.eus

Usurbil Autoak  
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

Antxeta  
TABERNA

egunero irekitzen dugu!

eguneko menua · asteburuko menua  
· karta · oilasko erreak, pizzak..

JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!  
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

## GuraSOS: “Egia argitzeko urratsak emango ditugu, arrain potoloek ihes egin ez dezaten”

**D**uela aste batzuk egin zuen agerraldiaren haritik urrats berriak eman ditu GuraSOSek Zubietako erraustegiaren bueltan eta zehazkiago esanda, Arkaitzerrekako isurien auzian. Ikerketan sakondu eta ikerketa ildoak zabaltzeko “hogei ikerketa-eginbide” eskatu dizkio GuraSOSek auzitegiari. Baita ikertutako pertsonak 17 izatea eta ez aurreikusia dagoen moduan 11. “Horien artean, GHK, Ekondakin Kontzesioduna eta Ekobal operadoreko 6 koadro tekniko eta arduradun sartuz eta erakunde juridiko horiek ikertutako gisa egoztea”.

Dagoeneko eginbideak zabaltzeko eskaera idatzia aurkeztu du GuraSOSek. “Argi dago Arkaitzerrekako isurketen kasuan delitua dagoela, Guardia Zibilak adierazten duen moduan eta beraz, kondena epaiak egongo direla”.



Dagoeneko eginbideak zabaltzeko eskaera idatzia aurkeztu du GuraSOSek.

### GURASOS

#### ***Arkaitzerrekako isurketen kasuan delitua dago, “Guardia Zibilak adierazten duen moduan”***

Bide honetan, “egia argitzeko azken erantzukizunak argitzeko urratsak emango ditugu, arrain potoloek ihes egin ez dezaten” zioen GuraSOSek hilabete hasieran egindako agerraldi batean.

### Martxan, lanak bukatu gabe

Eginbideak zabaltzeko eskaera GuraSOSen esanetan, Guardia Zibilak 2020ko maiatzeko Arkaitzerrekako amoniako isurketaren harira hasitako ikerketari lotua dago. Ikertzen hasita, lehendik isurketarik izan zela jakin ahal izan zuten eta, urte bereko martxoaren 18an. Ez hori bakarrik. “Konturatzen dira ingurumen baimenak ez duela onartzen edo ahalbideratzen ezta probatzea ere,

obrak bukatu ez badira”. Bestela esanda, erraustegian “probak egiten aritu dira, obrak bukatu gabe eta Ingurumen Baimen Bateratuak aurreikusitako segurtasun-sistematik gabe, beharrezko bermeak jarri gabe”, GuraSOSek salatzen duenez.

### Irabaziak enpresa emakidadunarentzat

Eta bitarte horretan, enpresa emakidadunak “etekin ekonomikoa” eskuratu duela salatzen du GuraSOSek, “46 milioi eurokoa dela kalkulatu dugun”. Dirutza hau irabazi ahal izan du obrak bukatu gabe egon arren dirua jaso duelako eta “probak ez egiteagatik kontratuak aurreikusten zituen zigorrrak jarri ez zaizkiolako”. Horregatik eskatzen dute enpresa emakidadunaren inputazioa, “onura ekonomikoa dagoelako” hainbat urraketa egonda ere.

## Hikan aritu ziren Euskararen Egunean



Eli Pagola eta Aitor Mendiluze bertsotan aritu ziren.



Esti eta Mikel Markezen kontzertuarekin amaitu zen Hikodromoa.

Euskararen Egunearekin bat amaitu zen hikaren inguruan antolatu zuten ekintza zikloa. Hikodromoan hainbat herritar bildu ziren toka eta noka praktikatzeko, eta ekitaldi bereziaren ondoren, Esti eta Mi-

kel Markezen kontzertuarekin amaiera eman zioten egunari. Hikodromoan dozenaka herritar bildu ziren frontoian arratsaldeko 18:00etan. Bakoitzak lau bat minutu izan zituen parekoarekin hika

mintzatzeko, eta aldaketa errazteko, Eli Pagola eta Aitor Mendiluze bertsotan aritu ziren, hika jakina, Antton Aranburu eta Gari Otamendiren musika lagun. Ekitalditxo batekin itxi zuten hikodromoan

egindako ariketa.

**Esti eta Mikel Markezen saioa**  
Ondoren, Euskararen Eguna agurtzeko, Esti eta Mikel Markezek kontzertua eskaini zuten frontoian.

**ETXEBIZITZA****Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

**Alokairuan**

Usurbilgo erdigunean etxebizitza alokatzen da, denboraldi motzetarako. 2 logela, egongela, sukalde-jangela eta bainugela. Altzariekin eta sartzeko prest. 657 770 131.

San Esteban kalean (Etxealdia) 31m<sup>2</sup>ko lokal bat alokairuan. Masajeak emateko edo estetikazko zerbitzuak emateko prestatuta dago. 655735715.

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Usurbilen pisu konpartitu batean logela bat alokatzen da mutil edo neska batentzat. Bila bazabiltza deitu 618032966

Neska kaudimenduna, mas-kotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107.

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500.

**MOTORRA****Salmenta, garajeak**

Ezinduentsako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Otxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326.

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Zerbitzaria behar da Artzabal-en, barra, eguneko menua eta kartarako. 3 astetik behin asteburua jai. 30 orduko lanaldia. Interesatuok hona deitu: 943 36 91 39.

Olarrondo jatetxean zerbitzaria behar dute astebukaerarako. Eguerdian lan egiteko. 626 686 036.

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izatea baloratuko da. 669 527 452.

Zerbitzari bila gabiltza Aginaga sagardotegian. Deitu telefono zenbakiotako batera: 943366710 edo 943370668.

Emakume bat behar da umeak

zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505.

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

Umeak zaintzeko pertsona bat behar dugu, txandaka, goiz eta arratsalde. Hilabetean 15 ordu. Euskalduna izatea. 666 925 378 (Esti).

Adinekoak eta haurrak zaintzak edota etxeko garbiketarako eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Astelehen eta asteazken arratsaldeetan ingeleseko klaseak ematen ditut, norberaren etxean edo nirean. Klaseak ematen esperientzia zabal. 678106553.

Pertsona helduak, garbiketarako, peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonetako bat naiz. 622747833.

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, neska bat naiz. 622747833.

**BESTELAKOAK**

Txerriak salgai. Apote bat eta 9 zerrama dauzkagu salgai. 6/7 hilabetetako 5 txerrikume ere bai. Interesatzen bazaizu deitu 607 668 603 (Joxe Cruz)

Ingeleseko, frantseseko eta latineko kalseak ematen ditut etxera joanda. 600766068.

Filologia ikasketak ditut, ingeleseko klaseak ematen ditut bakarka edo taldean. Maila guztiak. Harremanetan jartzeko deitu hona 660845780 edo idatzi email bat hona: bouchrahajar@outlook.com



**Zorionak amona Lucia!**  
83 muxu erraldoi!!

**Futbol partidak Haranen****Abenduak 18, larunbata**

■ 9:00 Infantilen 1. Maila:

-Udarregi Usurbil FT "A"

-Texas Lasartearra CF

■ 10:30 Kadeteen 1. Maila:

-Usurbil FT "B"

-Texas Lasartearra CF

■ 12:30 Gorengoen maila:

Usurbil FT-Hernani CD

■ 15:30 Errejonalen 1. Maila:

Usurbil FT-Ostadar SKT

■ 17:45 Emakumezkoen

gorengoen maila:

Usurbil FT-Intxaurdi KE "B"

**Abenduak 19, igandea**

■ 10:00 Futbol Eskola

Alebina Hobekuntza:

Usurbil FT-Idiazabal KE

■ 11:15 Futbol Eskola

benjamin 1. urtea:

Usurbil FT-Ostadar SKT

**Eskubaloitako partidak Oiardo kiroldegian****Abenduak 18, larunbata**

■ 16:00 Jubenil neskak:

-Usurbil K.E.

-La Salle-Saieko K.E.

■ 17:45 Kadete mutilak:

-Zarazpe Usurbil K.E.

-Egia Indaux

■ 19:45 Jubenil mutilak:

-Usurbil K.E.

-Egia Baztarre taberna.

**Abenduak 19, igandea**

■ 11:30 Kadete neskak:

-Usurbil K.E.

-Arrate Eibar Eskubaloia.

**Peru Iraeta kadete jokalaria, Euskal Selektioarekin**

Igande honetako entrenamenduan hartuko du parte. Zumaiako Lubaki Kiroldegian, arratsaldeko 18:00etan.

**Heriotzak**

**Joaquina Diez Martin**  
Abenduaren 1ean hil zen 91 urterekin, Santuenean

**Heriotzak**

**Pedro Elustondo Sarasola**  
Abenduaren 12an hil zen 59 urterekin, Aginagan.

**Goardiako farmaziak**

**Osteguna 16** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Ostirala 17** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Larunbata 18** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Igandea 19** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Astelehena 20** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Asteartea 21** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Asteazkena 22** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Osteguna 23** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 24** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 25** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Igandea 26** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER  
Andre Kalea, 48 "Cuevas"  
943 55 17 93

**Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian dituzue ikusgai.**

# Agenda abendua

## 16 osteguna

- **Marsel magoaren emanaldia** 18:00 Sutegin. Izen ematea: usurbilkultura.eus
- **Zumarte Musika Eskolako ikasleen kalejira** 18:30 Zumartetik abiatuta.
- **Santueneko Auzo Planaren diagnostikoa, aurkezpena** 18:30 auzoko frontoian.

## 18 larunbata

- **Antzerkia Aginagako Eliza Zaharrean: "Botadun katua"** 18:00 Sarrera: 3 euro, Arraten.
- **Gabonetako zuhaitzaren piztea eta azoka solidarioa Santuenean** Azoka 16:00etan eta zuhaitzarena 18:30ean, Dj Mendik girotua.

## 19 igandea

- **San Tomas Azoka** Eguerdian, Usurbilgo frontoian.
- **Txokolate jana eta "Album" antzezlan** 17:00 Txokolate-jana Askatasuna Plazan. 18:00 "Album" antzezlan, Sutegin.

## Marsel, magia eta zientzia uztartzen dituen magoa

Udazkena Liburutegian zikloa borobiltzeko magia ikuskizuna iragarri zuten azaroaren 24rako. Bertan behera utzi behar izan zuten. Ostegun honetan berreskuratuko dute Marsel magoaren emanaldia.

### "MagiaZ: Magia eta Zientzia uztartuz, Marsel margoarekin"

- Eguna: abenduak 16 osteguna.
- Ordua: 18:00etan, Sutegin.
- Izen ematea: usurbilkultura.eus
- Oharra: 6 urtetik beherakoek heldu batek lagunduta joan beharko dute.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.



Ostegun honetan Sutegin arituko da.

### "Botadun katua" antzezlan Aginagako Eliza Zaharrean

#### Abenduak 18, larunbata

- 18:00 "Botadun katua" antzezlan Aginagako Eliza Zaharrean. Charles Perraultek jasotako ipuin klasikoaren moldaketa.
- Sarrera: 3 eurotan Arraten salgai.
- Antolatzailea: Antxomolantxa.

### "Album" antzezlan eta txokolate jana Askatasuna plazan

#### Abenduak 19, igandea

- 17:00etan txokolate-jana Askatasuna plazan.
- 18:00etan "Album" antzezlan Sutegin.
- Sarrera 5 euro, usurbilkultura.eus plataforman salgai.
- Antolatzaileak: Hitz Aho eta Udala.

### Datozenak

#### San Tomas eguna Santuenean

##### Abenduak 21 asteartea

18:30etatik aurrera, San Tomas eguneko txistorra banaketa. "Olentzeroren postontzia jarriko dugu Dj Mendiren musikarekin".

- Antolatzailea: Santuenea Kultur Elkartea.

#### Txomin Iturberen biografia-liburuaren aurkezpena

##### Abenduak 22 asteazkena

Jokin Urainen "Txomin aurrera bolie!" liburu aurkezpena, Jokin Urain eta Xabier Miguel Ezkerraren eskutik.

- Sutegin, 19:00etan.
- Izen ematea: usurbilkultura.eus
- Antolatzailea: Aitzaga Elkartea.

#### Usurbilgo sortzaileen uzta ikusgai

2021. urtean zehar Usurbilgo sortzaileek kaleraturiko sortze lan berrien bilduma ikusgai izango duzue asteotan Sutegiko erakusleihoan.

**Antzerki**  
Patri<sup>2021</sup>  
Iatetxea

bazkariak EGUNERO  
afariak. ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia

**LABE-GOXO**

# San Tomas eguna


Abenduaren **19an**  
igande goizez



## Babarrun eta sagardo lehiaketa



- USURBILGO SANTOMAS **BABARRUN** ETA **SAGARDO LEHIAKETA**
- EUSKAL HERRIKO **4. EGURREZKO SAGARDOAREN LEHIAKETA**
  - EUSKAL HERRIKO **2. SAGAR MUZTIO LEHIAKETA**
- IXABEL AGIRRESAROB**ekin **UMEENTZAKO IPUIN KONTAKETA**
- Sagardo dastaketa, bertako produktuen **azoka** eta **LumaGorri oilasko pintxoak**, **gaztain erreak** eta **gozogintza** postuak



**noova**

Unibertsitatea

USURBILGO  
SAGARDO  
EGUNAREN  
LAGUNAK

# Argiztatu herria

Erosi herriko dendatan,  
eta irabazi bonuak!

**30 €-ko  
30 bonuren  
zozketa**

Hurbilagoko establezimendu  
bakoitzak bere bonua dauka,  
guztira 900 € zozketatuko dira.

**Parte hartu!**

 Abenduaren 13tik  
Urtarrilaren 10era

Ikus gertuago.eus-en dauden HURBILAGOKO dendak, berriak eta promozioak.